

IPARRAGIRRE!¹

JÁUNAK:

Arrotz batek; erri batera datorrenean, lenbiziko galdetzen duena da:—¿Nola bizi da emen jendia? Zér sentitzendu? zér sinisten? zér adoratzen? zér maite?—Jaungoikoa eta Fuegoak!—eranzungodu, mundua irago arte, Euskaldunak; da esango balu bezela:—Bi Arbola: Gurutzekoa eta Gernikakoa. —Gurutzekoa, emen geran artean eta gero, gizon guztiak anaiturik, gure zoriontasuna egiten duena. Gernikakoa, lenbizikotik zuzen-zuzen datorrena, bere zañetik sortua ta beragatik llezkorra, beti biziko dana, gizon gaiño batzuek ala ez uste arren, ta oraindikan, naiz gaur makurtua egon, usterik guchienean alchatuko dana Euskaldunok zentzurik badegu, Euskaldunok euskaldun izaten bagera!

Ta ¿zeiñ da gure artean Arbol orri gaiñ-gañez, beste iñork ez bezela, kantatu diona?—Iparragirre!—Ta—zeiñ zan?—galdetuko dute mundurik-mundu gizaldi guztiak: eta beti, euskal-mendi tarteko oiartzun baten boza balitz bezela, entzungo dute jendiak:—Iparragirre!—A!... Non jaio, non ibilli, nola bizi ta nola ill zan, denok dakigu; dira, itz batean, gizonaren munduko gora-berak; baña denok ez deguna, ta izan bear genukena, da Iparragirre-ren biotza, beti amorioz sutua bere lurrarentzat, egun alai eta tristeetan, ala nola Zeruko izarra beti dan bat bera, distiatzen duenean, edo odei beltzez estalirik ageri ez danean.

Atsegiñ aundiz aitortzendet erri noble eta leial ontako semea zala,

(1) Brindis de D. Antonio Arzác, pronunciado por su autor en el banquete oficial celebrado con motivo de la inauguración de la estatua erigida al inmortal bardo euskaro.

chikitan arzai-mutilla, gero Amerikara joan, ta lurmiñaren¹ indarrak emen ezurak uztera ekarria; eta argatik edaten det oraiñ erri ontako semeen osasunera, gure mendiyetako arzaiera, ta Ameriketari ditugun anai maiteenera, diosal egiñik lendabizi, errespeto guziarekiñ, iru probinzi aizpen gure diputadu jaun chit goituai; uri ontako Bilguma, Gipuzkoa ainbeste onratzen duenari; Bilbaoko *Euskal-Erria* deritzaion Elkargoari; talluntza egin duen Font jaunari, ta nere entzule guztiai.

Bukatzer a noa. Etzinduzteket aspertu nai, eta gañera, mingaña dijoakitan beldur naiz.

Euskaldunok nobleak gera: ¿nola ez bigaldu oroitz bat andre alargun eta aur umezurtz, Españaiko Errege ta Erregiñ izanik gaur gure Donostian arkitzen diranai? Guz ez degu iñorentzat gorrotorik; nere biotzeko adiskide Peña eta Goñi jaunak esan duen bezela, amorioa denentzat senti du Euskaldunak. Bakarririk nai deguna, ta egun bat eta bestean eskatzen degun ta eskatuko deguna, da justiziya; eta kontu, jáunak: lurrean justiziya galdu baldin bada, justiziya Zerutik etorri liteke!

Erritar maiteak: egun aundiya da gaur guretzat; baña eglyaz aundiya izangodana da, *Arbola Santua!*, geiago ez erortzeko, alchatzen dan egun ura. Datorrela lenbailen!



(1) *Lurmiña*= nostalgia. No encontrando esta voz en los diccionarios ni escritos euskaros, la introduzco sin pretension de imponerla.